



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Auzoak eta Herritarren Partaidetzako Bulegoa
Negociado de Barrios y Participación Ciudadana

Ijentea, 1 - Tel. 943481356 - 943481368 - 943481000 - Faxa 943481661 - E:mail: udala_partaidetza@donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Donostia-San Sebastián, 31 de mayo de 2002

Estimados amigos y amigas:

La I Audiencia Pública a los chicos y chicas de Donostia sobre la que os informábamos al comienzo de curso, ya es una realidad. El pasado día 24 de mayo fue celebrada en el Salón de Plenos del Ayuntamiento. Ha sido un proceso largo pero fructífero que hemos tenido la ocasión de compartir con más de dos centenares de jóvenes y los responsables de nueve centros colaboradores. Consideramos que lo que mejor refleja el alcance de este proyecto es el manifiesto consensuado por todos ellos y que se encuentra a vuestra disposición en la página Web: www.partaidetza.org

De cara al próximo año ya estamos preparando la II Audiencia, que versará sobre la Planificación Urbanística. Os adjuntamos un primer borrador acerca de la misma, nos gustaría contar con vuestra participación, estáis todos invitados. En setiembre os enviaremos información más concreta del proyecto a desarrollar en est II Audiencia a los chicos y chicas de Donostia.

Un cordial saludo,

Eva Salaberria Artano
Técnica de Participación Ciudadana



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Auzoak eta Herritarren Partaidetzako Bulegoa
Negociado de Barrios y Participación Ciudadana

Ijentea, 1 - Tel. 943481356 - 943481368 - 943481000 - Faxa 943481661 - E:mail: udala_partaidetza@donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Donostia, 2002ko maiatzaren 31a

Lagun estimatuak:

Ikasturtearen hasieran aurkeztu genizuen Donostiako neska-mutilentzako I. Entzunaldi Publikoa gauzatu da dagoeneko. Entzunaldia iragan maiatzaren 24ean egin genuen Udaletxeko Batzar Aretoan. Prozesu luzea baina emankorra izan da, eta horretan aukera izan dugu berrehun gazte baino gehiagorekin eta laguntza eman diguten bederatzi zentzorekin elkarlanean aritzeko. Uste dugu proiektu honen esanahia ezin hobeto agertzen dela beraiek hitzarturiko manifestuan, eta hori irakurtzeko Web-orri honetara jo dezakezue: www.partaidetza.org


Datorren urteari begira II. Entzunaldia prestatzen ari gara, eta horren bidez Hirigintzako plangintza landuko dugu. Horri buruzko lehenengo zirriborroa bidaltzen dizuegu. Zuek denok ekimen honetan parte hartzea nahi nuke, eta beraz denok zaudete gonbidatuta. Irailean informazio zehatzagoa bidaliko dizuegu Donostiako neska-mutilentzako II. Entzunaldi horretan garatu beharreko proiektuari buruz.

Har ezazu agur bero bat

Eva Salaberria Artano
Herritarren Partaidetzarako Teknikaria

II Audiencia a los chicos y chicas de Donostia

**¿Como queremos que sea la Donostia del futuro?
De la preservación del patrimonio al urbanismo de mañana**



Borrador para la Audiencia de mayo de 2003
(en colaboración con el Ayuntamiento de Barcelona)


Los objetivos de las Audiencias públicas a los chicos y chicas.

Esta acción persigue el doble objetivo de dar la voz a los chicos y chicas, como ciudadanos de pleno derecho, y de permitir ejercitar una práctica de educación para la participación ciudadana. Este objetivo solo se consigue desde el ejercicio práctico de la participación: siguiendo un proceso de información, debate y elaboración de conclusiones colectivas, negociando para lograr acuerdos, gestionando los trámites formales por los que se desarrolla esta modalidad de participación ciudadana, etc. Pero también hay otro objetivo relacionado: que a partir del trabajo sobre el tema propuesto, los chicos y chicas se hacen una idea de ciudad. Se trata en definitiva de un aprendizaje para la gestión de los asuntos de la comunidad, desde la consideración de la ciudad como algo propio.

Algunas de estas cuestiones se han tratado ya en proyectos anteriores: los espacios públicos como espacios de convivencia (proyectos del parque de Araba y de Bidebieta), la movilidad (con la I Audiencia), ... Esta perspectiva nos da la llave para formular la II Audiencia Pública a los chicos y chicas.



El tema: la planificación y la intervención urbanística





El tema hace referencia al patrimonio arquitectónico y la vitalidad urbanística de la ciudad. La planificación y la intervención urbanística, como uno de los principales elementos que configuran la ciudad, queda, en muchas ocasiones, lejos de las preocupaciones de la mayoría de los ciudadanos y ciudadanas. Sin embargo no debemos olvidar que la planificación e intervención urbanística es el principal factor de configuración del espacio urbano, de la dotación de equipamientos, de la construcción del entorno urbano. Por esta razón consideramos importante introducir en los jóvenes conceptos básicos de planificación urbanística así como la necesidad de la información, el debate y la participación ciudadana en este tema.


Contenidos de la II Audiencia para los chicos y chicas de Donostia.

Proponemos que los debates y propuestas para la II Audiencia giren en torno a los grandes ámbitos de planificación e intervención urbanística (revisión el Plan General), el conocimiento del patrimonio arquitectónico de la ciudad, la construcción o remodelación de equipamientos, las intervenciones previstas en las zonas más próximas a las escuelas e instituciones de tiempo libre participantes: planes de ordenación de barrios como Altza, Loiola,

Se trata de un modelo de Audiencia pública donde se priman los contenidos de aprendizaje: mecanismos de conocimiento de la ciudad, problemas básicos de urbanismo, etc. Este conocimiento servirá al joven para valorar hoy y en el futuro la importancia de este tema, del que depende la calidad de vida y equilibrio ambiental de la ciudad.



La Metodología de la II Audiencia



a) Sesión Informativa a los Centros de recursos pedagógicos, a los técnicos de educación y de urbanismo. Julio de 2002.

b) Sesión Informativa para el profesorado y educadores de tiempo libre que tengan interés en el proyecto. Se contará con la colaboración de técnicos de urbanismo y de arqueología. Setiembre de 2002.



c) Jornada de formación para docentes y educadores participantes en la II Audiencia. La jornada en la que participarán profesionales del urbanismo y la arqueología, se dará información, documentación y elementos para iniciar el trabajo de la Audiencia en el aula o la tutoría y en los centros de tiempo libre. Se realizará en octubre.




d) Jornadas previas de presentación del trabajo a los chicos y chicas. En estas jornadas, que incluirán visitas a algunas de las intervenciones urbanísticas en curso, dirigidas a los grupos de chicos y chicas implicados en el proyecto, se pretende que sean conscientes de la importancia del trabajo realizado y de participar en un debate colectivo. Noviembre de 2002.



e) Trabajo en los centros. Los docentes y educadores dispondrán de la información, documentación y formación necesarias para comenzar el trabajo, y del asesoramiento, a cargo de pedagogos, urbanistas y arqueólogos, que sea necesario. Se realizarán prácticas de simulación de planeamiento urbano. También se podrán realizar visitas a algunas intervenciones urbanísticas o arqueológicas en curso o a las zonas donde están previstas.



f) Encuentros intercentros. Los chicos y chicas representantes de los grupos inscritos en el proyecto participarán en tres encuentros intercentros en que presentarán las aportaciones de su grupo y acordarán las conclusiones comunes.



g) Comunicación entre los grupos escolares que participan en el proyecto desde Barcelona y Donostia. Información del proceso de trabajo, y transmisión de la documentación recogida (en formato fotografía o vídeo digital) y de las conclusiones a los grupos de jóvenes de la otra ciudad.



h) Celebración de la Audiencia. Fruto del trabajo realizado, los chicos y chicas elaborarán la propuesta en forma de manifiesto. Durante el mes de mayo se celebrará la Audiencia en el Salón de Plenos, en la que se darán a conocer las propuestas de los jóvenes que podrán ser acompañadas de una exposición gráfica. A esta Audiencia asistirán representantes de chicos y chicas de Barcelona que participan con el mismo tema en la Audiencia de Barcelona.


Antes de la celebración de este acto, los representantes de los chicos y chicas participantes darán a conocer el trabajo realizado al Concejal de participación, departamento promotor de la Audiencia. También se realizará el trámite de entrada en el Registro Municipal para formalizar la solicitud al Alcalde para la celebración de la Audiencia Pública. Una representación de los chicos y chicas donostiarras asistirán a la VIII Audiencia Pública que se celebre en Barcelona sobre el mismo tema.

i) Análisis de la actividad y seguimiento de los acuerdos adoptados por el Consistorio. Se recogerán propuestas temáticas y de mejora para la próxima Audiencia.

Donostia-San Sebastián, mayo de 2002

Donostiako neska-mutilentzako II. Entzunaldi Publikoa

Nolako Donostia nahi dugu etorkizunari begira?
Ondarea babestetik etorkizuneko hirigintzara




2003ko maiatzean egin beharreko Entzunaldirako zirriborroa
(Bartzelonako Udalarekin elkarlanean)


Neska-mutilentzako Entzunaldi Publikoen helburuak

Ekintza horrek bi helburu ditu: batetik, neska-mutilei ahotsa ematea, eskubide osoko hiritar gisa, eta bestetik, herritarren partaidetzarako heziketa-jarduera bat gauzatzeko aukera ematea. Helburu hori lortzeko bide bakarra, ordea, partaidetza hori benetan gauzatzea da: gaiari buruzko informazioa jaso, eztabaidatu eta denen artean ondorioak atera, akordioak lortzeko negoziatu, herritarren partaidetza-modu hori garatzeko egin beharreko izapideak kudeatu eta abar. Baina bada horrekin zerikusia duen beste helburu bat ere: proposaturiko gaiari buruzko lanetik abiatu, neska-mutilek beren hiriar buruzko ikuspegi bat hartzea. Azken batean, erkidegoko gaiak kudeatzen ikasiko dute, hiria norberarena ere badela kontuan hartuta.

Gai horietako batzuk aurreko proiektuetan landu dira: espazio publikoak bizikidetzarako espazio gisa hartuta (Araba eta Bidebietako parkearen proiektua), mugikortasuna (I. Entzunaldia)... Lan horiei esker, neska-mutilentzako II. Entzunaldi Publikoa egiteko aukera dugu orain.



Gara hirigintzako plangintza eta jarduketak





Hiriko ondare arkitektonikoa eta hirigintza-jardueren bizitasuna dira landu nahi ditugun gaiak. Hirigintzako plangintzak eta jarduketak, hiri tankeratzen duten gai guztiz garrantzitsuak izan arren, ez dute sarritan herritarrengan kezka handirik sortzen. Hala ere, ez dugu ahaztu behar hirigintzako plangintza eta jarduketak dela hiri eremua, ekipamenduen hornidura eta hiri-ingurunearen eraikuntza ahalbidetzen duen faktore nagusia. Horregatik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu gazteei hirigintzako plangintzaren oinarrizko kontzeptuak erakustea, eta gai horren inguruan informazioa jaso, eztabaidatu eta herritarren partaidetza bultzatzeko premia nabarmentzea.


Donostriako neska-mutilentzako II. Entzunaldiaren edukiak

II. Entzunaldiaren inguruko eztabaidak eta proposamenak honako gai hauen inguruan egitea proposatzen dugu: hirigintzako plangintza eta jarduketaren alor nagusiak (Plan Orokorraren Berrikuspena), hiriko ondare arkitektonikoaren ezagutza, ekipamenduen eraikuntza edo birmoldaketa, eta parte hartuko duten eskoletatik eta aisialdiko erakundeetatik hurbilen dauden eremuetan aurreikusitako jarduketak: Altza, Loiola... eta bestelako auzo batzuetako antolaketa planak.

Entzunaldi Publikoaren eredu honetan irakaskuntza-edukiak lehenetsi dira: hiria ezagutzeko mekanismoak, hirigintzaren oinarrizko arazoak, etab. Ezagutza hori baliagarria izango zaio gazteari, bai orain eta bai gerora ere, gai horren garrantziaz ondo jabetzeko, hiriko bizi-kalitatea eta ingurumen-oreka horren arabera erabakitzen baita



II. Entzunaldirako metodologia



a) Baliabide pedagogikoen Zentroei eta hezkuntza eta hirigintzako teknikariei Informazioa emateko Bilera. 2002ko uztaila.

b) Proiektuan interesatuta dauden irakasleei eta aisialdiko hezitzaileei Informazioa emateko Bilera. Hirigintza eta arkeologiako teknikariek parte hartuko dute. 2002ko iraila.



c) II. Entzunaldian parte hartuko duten irakasle eta hezitzaileentzako prestakuntza-jardunaldia. Jardunaldi horretan hirigintza eta arkeologia alorreko profesionalak parte hartuko dute. Beharrezko informazioa, dokumentazioa eta materiala emango zaie Entzunaldiari buruzko lana ikasgelan, tutoretzan eta aisialdiko zentroetan egiten hasteko. Urrian egingo da.




d) Lana neska-mutilei aurkezteko alde z aurreko jardunaldiak. Jardunaldi horiek proiektuan parte hartuko duten neska-mutilentzat antolatuak dira, egindako lanaz eta eztabaida kolektiboan parte hartu beharraz ondo jabetu daitezzen; une horretan egiten ari diren hirigintza-jarduera batzuk ikusiko dira jardunaldietan zehar. 2002ko azaroa.



e) Ikastetxeetako lana. Irakasleek eta hezitzaileek lanean hasteko beharrezkoa duten informazioa, dokumentazioa eta prestakuntza eta pedagogo, hirigile eta arkeologoaren aholkularitza izango dute. Hiri planeamenduaren simulazio-jarduera batzuk egingo dira. Era berean, egiten ari diren hirigintza edo arkeologiako lanak edo horiek egiteko aurreikusitako lekuak ikusi ahal izango dira.



f) Ikastetxeen arteko topaketak. Proiektuan parte hartzeko izena emanda dauden taldeetako ordezkariak (neska-mutilek) ikastetxeen arteko hiru topaketetan parte hartuko dute: horietan bakoitzak bere taldearen ekarpenak aurkeztu eta denon artean ondorioak aterako dituzte.



g) Bartzelonan eta Donostian proiektuan parte hartzen duten ikasle-taldeentzako komunikazioa. Lana zertan den jakinarazi, bildutako dokumentazioa bidali (argazki moduan edo bideo digitalean) eta ateratzen diren ondorioak beste hiriko gazte-taldeari helarazi.



h) Entzunaldia egitea. Egindako lanaren emaitza gisa, neska-mutilek proposamen bat prestatuko dute manifestu moduan. Entzunaldia Maiatzean egingo da Udaletxeko Batzar Aretoan, eta bertan gazteen proposamenak aurkeztuko dira, nahi izanez gero irudi grafikoak erabiliz. Bartzelonan gai bera lantzen ari diren neska-mutilek ere esku hartuko dute Entzunaldi horretan.

Ekitaldia egin aurretik, esku hartzen duten neska-mutilen ordezkariak egindako lanaren berri emango diote Entzunaldia sustatzen duen Partaidetza Departamentuko Zinegotziari. Bestalde, Udal Erregistroan sartzeko izapidea ere egingo da, Alkateari Entzunaldi Publikoa egiteko eskaera formalizatzeko. Donostiako neska-mutilen ordezkariak Bartzelonan gai horri buruz egingo den VIII. Entzunaldi Publikoan parte hartuko dute

i) Jardueren azterketa eta Udalbatzak hartutako erabakien jarraipena. Hurrengo Entzunaldirako gai eta hobekuntzei buruz egindako proposamenak jasoko dira

Donostia, 2002ko maiatza